

ASTARLOAREN EKARPENA EUSKAL GRAMATIKAREN IKERKETETAN

Durango, 2002-VI-29

Ricardo Gómez,
UPV/EHU eta «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegia

0. Atarikoak

Asko idatzi da eta, hala ere, gutxi dakigu oraindik Astarloaren hizkuntz ideiez. Haren alderdi apologizalea da, batik bat, Tabirako kapilauari buruzko ikerlanek gailendu dutena: Euskara munduko lehen hizkuntza –Paradisuko hizkuntza– izan zela adierazi zigula; honi loturik, euskara hizkuntza perfektua ere bazela, jakina; eta, nola ez, perfektzioaren oinarritzat jotzen zuen letren eta esanahien arteko egokitasuna betetzen zuela. Astarloak «analogia» deitu zion egokitasun honi eta, Mitxelena (1988[1960]) ederki azaldu zuenez, ikuspegi horren bitartez durangarrak fonologia morfologiaren mailara aldatu nahi izan zuen.

Nork ez du buruan haur jaio berrien lehen hotsen inguruko gertaldia, Arana-Goirik hainbesteko etekina aterako zion hura? *Discursos filosóficos* liburuan dioskunez (DF, 44-45), Astarloak Durangoko inude bati entzuna zion haurrek, arrak izanez gero, *a* hotsarekin negar egiten dutela eta, emeak badi-ra, *e* hotsarekin, ordea. Herriko bi zirujauri esker, ondoren, haurren sexuaren eta negar hots desberdinen arteko erlazio hori egiaztatu ahal izango zuen. Eta, azken buruan, erlazio honexek piztu bide zion Astarloari hizkuntzen perfekzioez arduratzeko grina:

Yo mismo he escudriñado este punto, habiéndome dado ocasion una casualidad, que al mismo paso me hizo entrar en la contemplacion de los idiomas, y despertó en mi los deseos de averiguar la perfeccion de ellos por cuantos medios eran útiles al intento. (DF, 44)

Hala eta guztiz ere, berrikitan Astarloari buruzko ikuspegia aski aldatu da. Alde batetik, hizkuntzaren jatorriaz zuen iritzia hutsetik sortu ez zela erakutsi dute zenbait ikerlarik. Izan ere, Astarloaren proposamenak Frantziako gramatika filosofikoaren ideietan bete-betean txertaturik ikusi dira; zehazkiago, zenbait autore sentsualistaren ildo beretik doazela, hala nola, Antoine Court de Gébelin edo De Brosses presidentea (cf. Gómez 1999).

Labur azaltzeko, Astarloak uste du gizakien jatorrizko hizkuntza bakarra, artikulatua, naturala eta perfektua izan zela. Eta, orobat, lehen hizkuntza hura oraindik existitzen dela, euskarak betetzen baititu lehen hizkuntzari legozkiokeen ezaugarri guztiak:

...estableceremos cuatro proposiciones: 1ª Que los primeros hombres hicieron uso de la facultad del habla, desde el primer instante de su creacion. 2ª Que el lenguaje que hablaron no fué el de la accion, sino un lenguaje de voces articuladas y significativas. 3ª Que este lenguaje no fué infuso por Dios, ni adquirido por el hombre, sino natural. 4ª Que el primitivo idioma fué uno y no muchos. (*DF*, 7)

Lehen hizkuntza bakarra izan zen; elizgizon batek nekez pentsa zezakeen bestela. Artikulatua zela esaten duelarik, Astarloak XVIII. mendeko eztabaidetan jarrera zehatz bat hartzen du: alegia, lehen hizkuntza ahozkoa izan zen hasiera-hasieratik (beste batzuek keinu eta mugimenduen bidez egin zela pentsatzen baitzuten, Condillac-ek esaterako) eta, bestalde, hots artikulatuak zioten (ez, ordea, oihu eta garrasiak, Rousseauk nahi zuen bezala).

Segur asko, hizkuntzaren jatorriari buruzko hausnarketetan Astarloaren punturik interesgarrienetako lehen hizkuntza naturala zela defendatzea da. Horren bitartez, hizkuntza Jaungoikoaren dohaina izan zela edo gizakiek asmatutako komunikazio-tresna zela uste zutenen kontra agertu zen Astarloa. Haren iritziz, Jaungoikoak gizakiari hizkuntz ahalmena eta mintzoaren organoak baizik ez zizkion eman eta, harrezkero, gizakiak, ahalmen hori naturaren aginduen arabera baliatuz, hizkuntza garatuz joan dira. Beraz, Astarloak uste du hizkuntza gizakion berezko ahalmena dela, nola edo hala egungo hizkuntz teoria sortzaileetara hurbiltzen delarik, arestian Itziar Lakak (1989) erakutsi digunez.

Azkenik, perfektua izatea lehen hizkuntzaren ezaugarri zela ia aho bateko iritzia zen garaian. Baina Astarloak hiru hatsarretan finkatu zuen lehen hizkuntzaren perfektzioa: gorago aipatu dudan analogia, ekonomia eta eufonia. Eta hala, lehen hizkuntzak hiru hatsarreok bete behar zituenez, eta euskarari baizik ez zituenez zeharo beteta ikusten, munduko lehenengo hizkuntza euskara izan zela ondorioztatzen zuen.

Ez dut, haatik, honelako arazoez luzatu nahi eta, hortaz, aski izan bedi esana. Beste zerbait da Astarloaren lan eskergatik ohartarazi nahi nukeena: euskal gramatikagintzaren esparrura ekarri zuen aurrerapena, hain zuzen ere. Zernahi gizaz, nire aurretik beste batzuek hartu dituzte hizpide, han-hemen, Astarloaren gramatika-ideiak. Jabier Alberdik (1989), esaterako, haren deklinabidearen azterketa xeheki ikertu zuen. Xabier Altzibarrek (1997) zenbait ekarpen zehatzez eta euren eraginaz labur jardun zuen. Alabaina, euskal gramatikari dagokionez, Astarloaren merezimendu aipagarririk baldin bada, nago *Discursos filosóficos* lanean aurki dezakegun euskal hitzen morfema-zatiketa xehea dela.

Eta hementxe dago azpimarratu nahi nukeen puntua: Astarloak morfematiketari ekin zion, neurri handi batean –osoan ez bada–, euskal soinuaren esa-

nahi naturala bilatzen ari zelako, lehen hizkuntzak behar duen analogia euskarak betetzen duela frogatu nahi zuelako. Hau da, hizkuntzaren jatorriari buruzko teoria batek bideratzen, eta are behartzen, du Astarloa euskararen gramatika-analisi zehatza taxutzera.

Euskal aditzaren azterketan burutu zuen, nik uste, zatiketa-saiorik bikainenena, aurkikundez bete. Izan ere, gaur egungo gramatika-liburuetan, hala nola euskaltegi eta ikastoletan erakusten diren zorioneko aditz taulak ezinezkoak lirateke, Astarloak abian jarri zuen morfema-zatiketa hartatik ez balitz.

Nolanahi ere den, euskal morfologiaren disezioa, hitz hori zilegi bazait, ez du Astarloak aditzaren eremura mugatzen. Izenaren flexioan ere meritu handiko analisiak eskaini zizkigun. Has gaitezen azken hauekin.

1. Kasuak eta posposizioak

Lehen euskal gramatika-lanak latinaren ereduari atxiki zitzaizkion, mende haietako Europako gramatikagintza tradizioan ohi zenez. Hau dela-eta, latinaren sei kasuko paradigma agertzen zaigu behin eta berriz aurreneko gramatika hauetan. Baina XIX. mendearen hasieran, alde batetik hizkuntzalaritza orokorraren eraginez (Humboldt aipa dezadan) eta, aldi berean, helburu apogetiko batek gidaturik (Astarloaz ari naiz), latinarekiko morrontza salatu zen eta euskalaritzan bestelako bideak bilatu ziren. Autore hauen irtenbidea kasuak eta posposizioak hertsiki bereiztea izan zen. Bestela esanda, kasu gramatikalak eta kasu adberbialak dei genitzakeenak bereiztea.

Astarloak «artikulu» terminoa erabiltzen du kasu-markei deitzeko; baina, terminoak termino, kasu gramatikalez ari da (cf. Gómez 2001a). Zehazkiago, Astarloaren arabera «artikulu» horiek lehen mailako erlazioak adierazteko baliokidute. Eta, haren ustez, lehen mailako erlazioak honako hauek ditugu: «egile» (honen artikulua *-k* delarik, egungo ergatiboa edo NOR*K* kasua), «jasailea» (markarik ez duena, egungo absolutiboa edo NOR), «hartzailea» (*-i* markaduna, gaurko datiboa edo NOR*I*) eta «jabea» (*-en* hizkiaz markatua; hots, genitiboa edo NOR*EN* kasua).

Astarloaren iritziz, munduko hizkuntzetan, lehen mailako erlazioak, edo «deklinabidearen» edo «artikuluen» bitartez adieraziko lirateke eta bigarren mailako erlazioak, aldiz, preposizioen edo posposizioen bitartez (DF, 326-328). Alabaina, Astarloak «deklinabidea» dioenean, hizkuntza klasikoan kasu-sistema du buruan. Ez du halako sistema bat perfektutzat hartzen, besteak beste, bertan marka batzuk errepikatzen direlako (beraz, ez da ekonomikoa) (1) eta erroaren eta kasu-marken arteko muga iluna delako. Jakina, Astarloak uste du lehen hizkuntzak «artikuluak» izan zituela, eta ez «deklinabidea» (DF, 329-334).

(1) Astarloaren ekonomia hatsarrearen definizioaz eta erabileraz, ik. aurrerago 2. atala eta Gómez (1999).

Beste alde batetik, Astarloa nahita urrundu zen Larramendiren analisitik. Andoaingo jesuitaren ustez, euskaraz artikulua deklinatzen dira, ez izenak ez besterik. Hots, «artikulu» deitu zien gaur egun «hondarki» deitu ohi direnei: adibidez, Larramendirentzat *a* eta *ak* artikulua dira; baina, era berean, *ek*, *aren*, *ari*, *ekin*, eta abar ere artikulutzat hartzen ditu (2).

Esan beharrik ez dago Astarloaren morfologi analisia Larramendirena baino askoz zorrotzagoa dela. Izan ere, *gizonari* moduko hitz batean, *gizon* izena, *-a* determinatzailea (berak *característica de apelativo* deitzen dio), *-r-* eufonikoa eta *-i* hartzailearen hizkia bereizteko gauza da:

En *guizon-a-r-i* hallamos tres letras unidas á la voz *guizon*. Conocemos que la *a* es nota de apelativo: que la última *i* es característica de recipiente; y no teniendo ministerio alguno la *r* en la propiedad de la voz, venimos en conocimiento de que sus funciones son correspondientes á la eufonía. (DF, 676).

Posposizioei dagokienez, Astarloak munduko lehen hizkuntzan posposizioak, eta ez preposizioak, izan zirela frogatzen saiatu zen. Ematen duen arrazoi nagusia hau da: ordena naturala «subjektua gehi atributua» denez gero, honelakoxea izan zen lehenengo perpausa. Atributua subjektuaren ezaugarri bat delarik, Astarloak ondorioztatzen du jatorrizko hizkuntzan ezaugarri guztiak, atributua bezala, posposizioak izan zirela. Nolabait, posposizioak ere subjektu bati aplikaturiko atributuak direlakoan dago.

Beste alde batetik, hizkuntza batzuetan, grekera eta latinean esaterako, «preposizio» deitzen diren guztiak ez dira halakoak, adberbioak edo «artikuluak» baizik (kasu-markak, alegia).

Astarloak bost posposizio bereizten ditu lehen hizkuntzan (DF, 346-348) eta, jakina, bost horiek dira gero euskararen ere aurkitzen dituenak, nahiz lehenbizikoan forma bat baino gehiago ematen dituen: helburua adierazten duen posposizioa (EN-ZAT, RA-CO, TE-CO), posposizio instrumentala (GAZ), materiala (EZ), motibatiboa (GATTI) eta baztertzailea (BAGA):

Hé aquí las cinco posiciones bascongadas en el orden que se han expresado:

Posposiciones	{	Final.....	En-zat, ra-co, te-co
		Instrumental.....	Gaz
		Material	Ez
		Impulsiva.....	Gatti
		Exclusiva.....	Ba-ga

(DF, 679)

(2) Cf., esate baterako, «el segundo es artículo compuesto *aréna* del artículo propio del genitivo *arén*, y del primero del nominativo *á*, como lo es en Romance el artículo *de el, de la*» (Larramendi 1729: 5).

Humboldt ere Astarloaren irizpide semantiko bertsuan oinarritu zen, lehen mailako eta bigarren mailako erlazioak bereizteko: prusiarraren arabera, alde batetik, kasuak izango genituzke –lehen mailako erlazioak adierazten dituztenak– eta, bestetik, preposizioak edo posposizioak –bigarren mailako erlazioak adierazteko– (cf. Alberdi 1989).

Humboldték, euskaratik abiatuta, kasuak egotea eta kasuen kopurua bera hizkuntzen ezaugarri unibertsalak direla aditzera eman zuen. Baieztapen unibertsalista hau gramatika orokorraren korrantean kokatu behar dugu. Nolanahi ere den, Astarloa ez bide zen Humboldtén iturri bakarra. Garai hartan, Franzian eta Alemanian hurrenez hurren, Bertrand (1797) eta Bernhardi (1805) bezalako autoreak ere mintzatu ziren kasuen unibertsaltasunaz eta kasu eta preposizioen arteko erlazioaz (Gómez 1996).

Euskararen kasu-sistemari buruz Astarloak eta Humboldték agertutako azterketek eragina izan zuten ondoko zenbait euskalarirengan, hala nola Lécluse (1826) eta van Eysengán (1865, 1867), besteak beste (Alberdi 1989).

2. Aditza

Esana dugu Astarloak euskal gramatikagintzari egindako ekarpen nagusia bere analisisetan morfema-zatiketa zehatza baliatzea izan zela. Orobat, zatiketa hori hotsen eta esanahien arteko analogia bilatzeari zor zaiola, hein handi batean. Hala eta guztiz, berehala aurkeztuko ditudan aditzaren eremuko adibideetan, hauteman daiteke munduko lehen hizkuntzaren beste hatsarre batek ere parte hartzen duela: ekonomia, hain zuzen ere.

Ekonomia hatsarrearen arabera, hizkuntza perfektu batek, naturak eskatzen duen gutzia adierazteko, ahalik eta baliabide formal gutxien erabili behar ditu. Honekin lotuta, Astarloak hizkien (berak *características* dio) eta esanahien artean bana-banako egokitasuna dagoela defendatzen du. Ondorioz, hizkuntzaren ekonomia aplikatuz gero, oposaketa bakoitzean hizkietarik bat betiere hizkirik eza izango da –zero morfema (\emptyset) esan genezake–. Ildo hone-tatik, oso interesgarria deritzot Astarloak zero marka ezartzen dion kategoria, eskuarki, gaur egun semantikoki ere ez-markatutzat edo ahulagotzat hartzen dugun kategoria dela nabarmentzeari: adibidez, numeroan singularrari dago-kio markarik eza, edo –lehenago ikusi dugun bezala– kasuen artean absoluti-bo edo NOR kasuari.

Hizkuntzan ekonomiak parte hartzen duelakoa ez zen, segur aski, ideia berria. Ezin izan dut, alabaina, puntu honetan Astarloaren aitzindariarik aurkitu. Nolanahi ere den, Astarloaren merezimendua eta berrikuntza, nik uste, ekonomia-aren hatsarrea sistematikoki erabiltzea da, gramatikaren kategoria eta azpikategoria guzti-guztietan aplikatzea, hain zuzen ere.

Ikus ditzagun zenbait adibide:

Astarloak hamaika modu bereizi zituen. Haietarik, Astarloaren iritiz, infinitiboari dagokio markarik eza, infinitiboak ekintza hutsa adierazten duelako. Enparauen artean, bestalde, modu indikatiboak ere ez du marka berezirik. Izan ere, infinitibotik bereizteko aski du denbora eta pertsonak adierazten dituela aintzat hartzea. Gainerako modu guztiez den bezainbatean, laguntzaile berezi batez edota hizki batez ezaugarritzen dira, honako taula honetan azaltzen den moduan:

1. taula: Astarloaren aditz-moduen sailkapena

Moduak	Ezaugarriak
infinitiboa	∅
indikatioa edo gaurkoa	denb., n ^o , perts.
ohiera («habitual»)	<i>oi / eruan</i>
ahalera	<i>al / eguin</i>
nahiera («voluntario»)	<i>nai, gura</i>
beharrera («necesario»)	<i>biar</i>
eragineria («forzoso»)	<i>eraso, eraguin</i>
agintera	<i>eguin + -∅</i>
subjuntiboa	<i>eguin + -n</i>
optatiboa	<i>-que</i>
penitindinarioa	<i>ba-</i>

Aditz denborak sailkatzeko, Astarloak *Port-Royalen hatsarrea* izenekoari jarraitzen dio. XVII. mendean, Port-Royal-eko lanek arlo honetara ekarri zuten berrikuntza denbora absolutuen eta denbora erlatiboen arteko bereizketa izan zen (terminoak Girard abadeari dagozkio, dena den): Denbora absolutuetan, hizketa-unea erabiltzen da denborak kokatzeko erreferentzia-puntu gisa. Denbora erlatiboetan, berriz, hizketa-unea eta erreferentzia-puntua desberdinak dira.

Port-Royaleko autoreen sailkapen honek arrakasta handia izan zuen Frantziako XVIII. eta XIX. mendeetako gramatika arrazionalistetan. Baina hispaniar tradizioan, Vicente Salvá (1827) eta Belloren (1847) lanek heldu arte ez zen ia ezagutzen; hau da, XIX. mendearen erdia arte.

Bada, honetan ere Astarloa erabat sartzen da joera arrazionalistaren barruan. Sei aditz denbora bereizi zituen: bi orainaldi, bi iraganaldi eta bi geroaldi, bakoitzean erreala eta apostrofikoa ere bereizi behar direlako (DF, 407):

2. taula: Astarloaren aditz-denboren sailkapena

	orainaldia (-ten)	iraganaldia (-∅)	geroaldia (-go)
erreala	<i>il-ten dot</i>	<i>il dot</i>	<i>il-go dot</i>
apostrofikoa	<i>il-ten neban</i>	<i>il neban</i>	<i>il-go neban</i>

Port-Royal-ekiko diferentzia Astarloak darabilen terminologian dago: Astarloak, «absolutua» barik, «denbora erreala» erabiltzen du eta «denbora apostrofikoa», «erlatiboaren» ordez. Erreal eta apostrofikoen artean, espero denez, errealei legezkieke zero marka; apostrofikoen hizkia, berriz, *-n* da. Bistan da, Astarloaren denbora erreal eta apostrofikoa gure orainaldi eta iraganaldiari dagozkie, hurrenez hurren.

Aitzitik, Astarloaren orainaldia, iraganaldia eta geroaldia gaur egungo aspektu-bereizketarekin daude lotuta. Gogoan har bedi XIX. mende hasieran oraindik ez dela aspektu kategoria gramatika-analisietan azaldu. Apaiz durangarrak aitortu behar du hizkuntzaren perfektzioa neurtzeko erabiltzen dituen irizpideek huts egin diotela oraingoan. Izan ere, naturan ez du argudiorik aurkitzen markarik eza iraganaldiari atxikitzea justifikatzeko, baina, jakina, ziur dago lehen hizkuntzan hala gertatu zela:

Tenemos dicho repetidas veces y volvemos á decir, que la economía de un idioma perfecto exige que una de las características en toda clasificacion de voces, ha de ser el no tener carácter alguno, y por lo mismo nos hallamos persuadidos que en el idioma primitivo el uso del infinitivo sin otro carácter, daría á entender uno de los tres tiempos. Pero ¿cuál sería éste? Hé aquí una dificultad de las mayores quizá que se presentarán en el estudio de los idiomas. Por mí, confieso ingénuamente que no hallo fundamento álguno en la naturaleza para decidirme cual de estos tres tiempos sería el primero de que hicieron uso los hombres. Sin embargo, me hallo inclinado á favor del pretérito. (DF, 411-412)

Beste arlo batera igaroz, Astarloaren usadioan «aditz-joko» (*conjugación*) terminoa anbigua da. Bi esanahi ematen dizkio:

Lehenengoa honelaxe defini daiteke: «Aditz batek hartzen dituen adizki guztien multzoa». Adiera honen arabera, Astarloak defendatu zuen, berriz ere ekonomia aplikatuz, munduko lehen hizkuntzan aditz guztiek joko bakarra zutela, adizki berberak erabiltzen zituztelako. Kontuan har bedi, euskal aditzaren azterketaz ari delarik, Astarloak han-hemen tartekatzen dituen adibideetan *il* aditzaz baliatzen dela beti, hala erabilera iragangaitzean nola iragankorrean, eta honek aukera ematen dio euskaraz aditz guztiak laguntzaile berberekin jotzen direlako ideia orokortzeko. Salbuespen bakarra aditz irregularrak izango lirateke, trinkoak alegia.

Bigarren adieran aditz-jokoa beste hauxe da, ordea: «Pertsonen artean gerta daitekeen konbinaketa». Eta, zentzu honetan, Astarloak 206 konbinaketa posible bereizten ditu, 206 joko beraz, NOR, NORI eta NORK-en pertsona desberdinak konbinatuz gero.

206 aditz-joko hauek, bestalde, zenbait irizpideren arabera sailkatzen ditu eta, ikusiko dugunez, sailkapen bakoitzean elementu batek hartuko du beti zero marka (DF, 431):

a. lehenbizi, aditz-joko kortesiazkoak (\emptyset), femeninoak eta maskulinoak;

- b. bigarrenik, aditz-joko aktiboak (\emptyset), pasiboak eta mistoak; eta,
- c. azkenik, aditz-joko hutsak (\emptyset) eta hartzailedunak (hau da, datiboa dutenak, NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK paradigmak).

Pertsona-komuntzadurari dagokionez, *Discursos Filosóficosen* euskaraz pertsona-komuntzadura markatzen duten aurrizkiak eta atzizkiak modu garbi eta zehatz batez identifikatu ziren –euskalaritzaren historian aurreneko aldiz, nik dakidala bederen– (3).

Astarloak zortzi pertsona bereizi zituen munduko lehen hizkuntzan. Jaki-na, kopuru horretara iritsi zen bigarren pertsona singularra hirutan banatu zuelako: eztabadako tratamendua (*zu*), hitano maskulinoa eta hitano femeninoa, alegia. Bereizkuntza honek zeharo agerian jartzen dizkigu Astarloaren planteamendu apriorizkoak. Nahiz eta, aitorturiko helburuen arabera, jatorrizko hizkuntzaren gramatika bilatzen ari den, argi dago alde aurretik euskara duela buruan eta ez dituela beti hain irizpide logiko eta naturalak erabiltzen.

Horregatik, Astarloaren lana irakurtzean, euskaraz ez dakienari pertsoneri buruzko atal hauxe da, ziurrenik, harrigarriena irudituko zaiona. Eta, aldi berean, euskaldunari konplizidadezko irribarre maltzurra sortaraz liezaioke. Izan ere, aditzaren tratamendu arrazionalista bat espero badugu, harrigarria irudituko zaigu lehen hizkuntzan zortzi pertsona zeudela aurkitzea, eta ez sei pertsona, hiru singularrean eta hiru pluralean. Euskaldunak, aldiz, berehala ikusiko du pasarte honetan Astarloaren jokabidearen gakoa: zer duen gogoan lehen hizkuntzaren gramatika bilatzen ari denean.

Ildo honetako beste adibide bat emateko, ekonomia hatsarrea pertsonalizkiei aplikatzerakoan, Astarloak dio lehen hizkuntzan markarik eza, alde batetik, egilean singularreko hirugarren pertsonan eta, bestetik, jasailean singularreko bigarren pertsonan gertatu behar zuela, naturak hala agintzen duelako gertatu ere:

Por la misma economía suponemos que el no tener característica alguna de persona el auxiliar, ha de ser señal de que el agente es tercera persona de singular, y el paciente la segunda masculina del mismo número. (*DF*, 465)

Horrela, naturak agindutakoa euskaraz betetzen dela erakusten du, adizki «ekonomikoena» NOR-NORK paradigmako *au* (\emptyset -*au*- \emptyset) «hark hi» dugularik.

Behin baino gehiagotan, Astarloak iradokitzen du pertsona-komuntzadura markatzen duten hizkiak pertsona-izenordainetatik datozela:

En la tercera conjugación [*Z-au*] hallamos por característica paciente la letra *z*, nota de segunda persona cortés, como que viene del pronombre *zu*, usted. [...] En la cuarta conjugación [*N-au*] la característica paciente es la *n* y denota primera persona del singular, como que viene del pronombre *ni yo*. [...] En la sé-

(3) Xehetasunetarako, ik. Gómez (2001b).

tima conjugacion [*G-au*] la persona paciente se halla caracterizada por la letra *g* y nos dá á entender la primera persona del plural, como que es la misma *gu*, nosotros, suprimida la *u*. (*DF*, 716-717)

Edo, hirugarren pertsona hartzaileez den bezainbatean, erakusleekin lotzen ditu:

En la conjugación 18 [*Autza* «Aquél te le ha muerto»] la persona recipiente es tercera de singular indicada en la letra *a* final, que es nota de esta persona, pues es el mismo pronombre con que damos á entender el *aquel* de la lengua castellana. [...] y en la conjugación 20 [*Autzee* «Aquél te les ha muerto»] la tercera de plural es la que recibe, ó el dativo indicado por las dos *ee* que viene del pronombre *aeec*, aquellos. (*DF*, 718)

Honen antzeko analisia, aldeak alde, ondoko autore askok egingo dute bere, Bonaparterekin (1869) hasi, eta de Rijkekin (1981) gaurko euskalari askok.

Aipagarria deritzot, orobat, beste honi: orainaldiko adizkietan agertu ohi den *d-* aurrizkia hirugarren pertsonaren markatatzat jo zuela Astarloak. Tamalez, orainaldiari buruz jardun zuen gehienbat eta, ondorioz, ezin dugu ziur jakin zein iritzi zuen gainerako aurrizkiei buruz (alegiatzko adizkietan azaltzen den *l-* edo aginterako *b-* aurrizkiez, esaterako).

Astarloaren lanak euskararen komunztadura-hizkien tradiziozko analisisaren oinarritzko gai nagusiak agertzen ditu; bide batez, ondoko autore batzuen lanetan baino askoz landuago agertu ere. Honako gai hauetaz jardun zuen, funtsean:

- a. Argumentu-motaren arabera komunztadura-hizki desberdinak daudela ohartarazi zuen, batzuk aurrizki gisa eta beste batzuk atzizki gisa azaltzen direlarik;
- b. kasu bakoitzean zein hizki diren ere zehaztu zuen;
- c. pertsona-komunztadura hizkien jatorrian izenordainak daudela iradoki zuen;
- d. pertsona-komunztaduraren eta numero-komunztaduraren arteko nahasketaketa.

Honelako analisi bat izan zen XIX eta XX. mendeetako proposamen gehien oinarria eta, bistan da, haren arrasto batzuk gureganaino ere heldu dira.

3. Laburbilduz

Gogorarazi ditzadan honaino erakutsi nahi izan ditudan arazo nagusiak. Astarloaren *Discursos Filosóficos* lanaren xedea munduko lehen hizkuntzaren ezaugarriak ematea izan zen eta, bereziki, lehen hizkuntzaren ezaugarri guz-

tiak betetzen dituen hizkuntza bakarra euskara izan zela frogatzea. Orobatsu dena, euskara munduko lehen hizkuntza izan zela frogatzea. Hala ere, bidea jorratu bitartean, euskal gramatikaren deskribapen aski zehatza eskaini zigan, zenbait alderditan uzta ederra lortu zuelarik.

Ekarpen nagusia, nik uste, euskal hitzen morfema-zatiketa dugu. Lehen hizkuntzaren perfektzioa frogatzeko aintzat hartu zituen analogia eta ekonomia hatsareak aplikatuz, euskal izen eta aditz morfologiaren hainbat flexio-hizki identifikatu zituen eta –zenbaitetan agerian, bestetan ezkutuago– paradigma batzuk bikain egituratu zituen.

Nolanahi ere den, nahiz eta Astarloak erabiltzen duen metodoa arras sakon eta zehatza izan, noiz edo behin bere jarrera apriorizkoa begien bistan dago. Hala, denbora errealean artean zero marka iraganaldiari ezartzen dionean, aitortu behar baitu horretarako argudiorik gabe dagoela. Edo lehen hizkuntzan zortzi pertsona bereizten dituelarik, argi eta garbi irakurlea euskararen datuetara gidatu nahi baitu. Eta hauek ez dira, inola ere, adibide bakarrak, jakina.

Helburuak helburu, Astarloak euskal gramatikagintzari egindako ekarpena munta handikoa dela esango nuke. Azaldu gabe geratu diren zenbait aipatzearen, fonetika eta fonologian, hotsen deskribapen artikulatorioa burutu zuen eta zenbait urrats egin zituen euskararen fonologi arau batzuen bidean (Oñederra 1989). Sintaxiari bagagozkio, berriz, euskararen hitz ordenan mintzagai egiturak duen garrantziaz ohartarazi zigan (Gómez prestatzen). Baina, orenen gaineratik, euskal morfologiaren arloan lortu zituen analisi bikainenak, haietariko batzuk, ikusi dugunez, gure egunotan ere indarrean daudenak.

* * *

4. Bibliografia

- ALBERDI, JAVIER. 1989. «Ohar batzuk euskal deklinabidearen historiografiarako». *ASJU* 23:2.411-434. Berrarg. in Gómez & Lakarra, arg. 1992, 67-90.
- ALTZIBAR, XABIER. 1992. *Bizkaierazko idazle klasikoak*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- . 1997. *Pedro Paulo Astarloa (1752-1806)*. (*Etxezarreta Bilduma*, 3). Durango: Arte eta Historia Museoa.
- ASTARLOA, PABLO PEDRO. 1883. *Discursos Filosóficos sobre la lengua primitiva ó Gramática y análisis razonada de la euskara ó bascuence*. Bilbo: P. Velasco. Berrarg. faksim. Bilbo: Amigos del Libro Vasco, 1988.

- BONAPARTE, LOUIS-LUCIEN. 1869. *Le verbe basque en tableaux*. Londres: Strangeways & Walden.
- GÓMEZ, RICARDO. 1996. «La aportación de W. von Humboldt a la gramática vasca». *RIEV* 41:2.607-622.
- . 1999. «El verbo en movimiento: una teoría sobre el verbo vasco de comienzos del XIX». In M. Fernández, F. García & N. Vázquez, arg. *Actas del I Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística*, 347-360. Madril: Arco/Libros.
- . 2001a. «Artículo y «artículo» en la tradición gramatical vasca». In M. Maquieira, M^a D. Martínez & M. Villayandre, arg. *Actas del II Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística*, 465-478. Madril: Arco/Libros.
- . 2001b. «Objektu-komuntadura XIX eta XX. mendeetako euskal gramatiketan». In B. Fernández & P. Albizu, arg. *Kasu eta komuntaduraren gainean. On Case and Agreement*, 167-194. Bilbo: UPV-EHU. Interneten ere eskuragarri: <http://www.ehu.es/servicios/se_az/pags/frp03/c40filol.pdf>
- . prestatzen. «Sintaxi natural baten bidetik: Astarloaren *Discursos filosóficos* (ca. 1804-1806)».
- & JOSEBA A. LAKARRA, ARG. 1992. *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak*. (ASJU-ren gehigarriak, 25). Donostia: Gipuzkoako Foru Al-dundia/UPV-EHU.
- LAKA, ITZIAR. 1989. «Astarloaren hizkuntzalaritzaz». *ASJU* 23:1.75-86. Berrarg. in Gómez & Lakarra, arg. 1992, 367-378.
- MITXELENA, KOLDO. 1988[1960]. *Historia de la literatura vasca*. 2. arg. Donostia: Erein.
- OÑEDERRA, M. LOURDES. 1989. «Euskal fonologiazko berriak 1900 arte». *ASJU* 23:1.115-132. Berrarg. in Gómez & Lakarra (arg.) 1992, 49-66.
- DE RIJK, RUDOLF P. G. 1981. «Euskal morfologiaren zenbait gorabehera». In *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 83-102. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- SIMONE, RAFFAELE. 1998. «The Early Modern Period». In G. C. Lepschy, arg. *History of Linguistics. III: Renaissance and Early Modern Linguistics*, 149-236. Londres/New York: Longman.